


Argiaren propietate berri bat aurkitu dute: bihurtura

Argiaren propietate batzuk aspalditik ezagutzen eta kontrolatzen dituzte zientzialariek, eta aplikazio ugari dira erabilgarriak: intentsitatea, uhin-maiztasuna... Orain, beste propietate bat ere kontrola dezaketela frogatu dute: bihurtura. Salamancako (Espainia) eta Colorado Boulder (AEB) unibertsitateetako ikertzaileek egin dute lan hori.

Laura Rego Cabezas Salamancako Unibertsitateko fisikaria da, eta, nabarmendu duenez, azpimarragarriena da argi-sorten propietate berri bat kontrola dezaketela: argiaren bihurtura. "Orain arte, jakina zen argi-sortak bihurturaz sor daitezkeela, hau da, hedatze-ardatzaren inguruan zurrumbilo-itxurako egitura baten bidez. Argi-zurrumbilo deitzen zaie horiei, eta haize-zurrumbiloen antzekoak dira. Lan honetan frogatu dugun argi-sorten mota berriak bere bihurtura denboran azeleratzeko propietatea du, bere errotazioa azeleratuko lukeen zurrumbilo baten gisan", azaldu du Regok. Haren esanean, eskala nanometrikoko dinamika ultralasterrak aztertze edo kontrolatzeko tresna bat izan daitezke, baina horren aplikazio teknologikoa "oraindik ikusteko" dagoela ohartarazi du. ●



Argiaren bihurturaren irudikapena. ARG.: Kevin Dorney, Kapteyn-Murnane taldea, JILA / Colorado Boulder Unibertsitatea.

Eltxo tigreak ia desagerraraztea lortu dute Txinako bi lekutan

Txinako bi lekutan eltxo tigrea ia desagerraraztea lortu dute, bakterio bat eta emeak antzutzeko teknika bat erabilita.

Asiako iparraldekoa da jatorriz, baina, gaur egun, Antartikan izan ezik, kontinente guztietan hedatu da eltxo tigrea, *Aedes albopictus*. Arriskutsua izan daiteke, hainbat birus transmiti ditzakeelako, hala nola dengea, chikungunya eta zika.



ARG.: James Gathany/CDC.

Wolbachia bakterioa erabili dute eltxoen populazioa kontrolatzeko. Bakterio horrekin infektatutako arrak bakterioaren andui berarekin infektatuta ez dauden emeein gurutzatzen direnean, sortzen diren arrautzak ez dira bideragarriak. Metodoa ez da berria, eta, dagoeneko, Afrikako bost herrialdetan ari dira probak egiten *Aedes aegypti* eltxoarekin. Ikertzaile txinatarren ekarpen garrantzitsuena eltxoak prestatzeko modua hobetzea izan da. Izan ere, teknika horretan, funtsezkoa da andui berarekin infektatutako emerik ez askatzea, kasu horretan arrautza bideragarriak sortuko lituzketelako. Hori saihesteko, erradiazio-maila jakin baten bidez, lortu dute emeak antzutzeta, eta arrak ez. Horrela, proba egin duten bi lekutan, bi urtez jarraian lortu dute eltxoen arrautzak % 94 eta pertsoniei egindako ziztadak % 97 murriztea. ●